


## BALIO PROPOSAMENA

Guk **konponduko dugun arazoa** maiz galtzen ditugun gauzak edo galdu nahi ez ditugun gauzak erraz eta momentuan aurkitzea da, etxeko leku guztietan bilatzen denbora asko galdu gabe eta gehiegi kezkatu gabe.

Etxeko giltzak, adibidez, askotan galtzen ditugu, bai kalean baita etxean ere. Giltzak bilatzen denbora galdu ordez, gure proiektuaren bidez segituan jakin ahal izango dugu non dauden.

Autobuseko txartela, NANA edo pasaporteak ez ditugu askotan erabiltzen eta erabili behar ditugunean, ez gara gogoratzen non utzi genuen azkeneko aldian. Horren garrantzitsuak diren gauza ofizialentzako, esaterako, oso erabilgarriak dira eranskailu hauek.

Gure ideia **erabilgarria eta berritzailea** da. Oso erraza da erabiltzea pegatina normal batek bezala funtzionatzen baitu. Gainera, ez da horrelakorik existitzen merkatuan nahiz eta beharra edo nahia egon. Bi arrazoi horiengatik egongo da bezeroa pegatina hauek erosteko prest.



Zerbitzu honekin guk balore kualitatiboa eskainiko diogu bezeroari, gure txip edo pegatinak kalitate handikoak direlako. Lehiakideengandik **bereiz gaitzke** honakoen bitartez. Alde batetik, prestazioa: produktu honen bitartez eguneroko bizitza erraztu diezaiokegu bezero edo bezero-segmentuari, denbora galtzeak saihestuz. Bestalde, lana erraztea: aipatu dugun bezala, gure produktuak gauzak aurkitzeko lana errazten du. Horrez gain, arriskuen murrizketak bereizten du gure produktua: asko baloratzen ditugun gauzak galtzea ekiditen du. Eskuragarritasuna ere eskaintzen du, izan ere, produktua nahi duten guztiek eros dezakete. Azkenik, gure produktuak erabilerraztasuna eskaintzen du, erabiltzeko erraza baita (pegatina batek bezala funtzionatzen baitu).